



inox

MUTED

Muted taldea 2003an sortu zen Abadiñon (Bizkaia). Beti kide mordoa izan dira Muted taldean, sei edo zazpi. Aurreko diskoa kon-tuan hartuta, bi aldaketaren berri eman behar da: bigarren diskoan (Sena) bi abeslari zeuden, eta horietako batek, Aitzolek, taldea utzi eta **Eneko** geratu da mikroaren ardurarekin. Ander Shinovak bere lekua utzi dio **Tito** baxulariari. Gauzak aldatu dira Muted taldean, baina ez horrenbeste. Zergatik? Bere historiak eta ibilbideak garbi markatzea gustuko du Muted taldeak, eta horretan datza bere indarra. Egin beharrekoa, bikain prestatu ondoren egiten duen taldea da. Kanpotik agian prestatuegi daudela eman arren, Muted taldearen barruan beti dago zurrunbilo kaotiko bat gauzak bere bidera ekartzeko. Lehen diskoa argitaratu baino lehenago, hainbat lehiaketatan parte hartu eta ongi sailkatu zen (Berriz, E. Gaztea eta Danbaka). Muted taldeak ongi gorpuztu du bere musika planteamendua; hor darrai orain arteko musika-jarrera eta barne eztabaidak. Metala eta melodia uztartzen dute. Gogortasuna eta samurtasuna batu. Lan berriarekin barne zalantza horiek gero eta erantzun gardenagoa dute.

Muted taldearen hirugarren diskoak "**Inox**" du izenburua, eta 2009ko martxoa eta apirilean grabatu da Lorentzo Records estudioan, Berrizen (Bizkaia). Ekoizpen-lanak Muted taldeak eta **Carlos Escobedok (Sober, Savia)** egin dituzte. Grabazioa **Aitor Ariñoren** esku egon da. Nahasketak eta masterizazioa **Alberto Searak** egin ditu Madrileko Cube estudioetan, 2009ko apirilean. Musika eta letra guztiak Muted taldearenak dira. Musikari gonbidatuen atalean "Beste aldean" abestian eta biolina jotzen, **Patxi Azurmendi** dago.

Muted taldea musika-estiloa aldatuz doa, poliki-poliki. Baina hori ere ez da egia borobila. Muted taldeak, oraindik ere, metala esaten zaion musika egiten jarraitzen du. Kontua, ordea, metalari eranstean dizkioten musika-ñabarduretan datza. Gero eta ñabardura gehiago. Gero eta ezaugarri eta bereizgarri gehiago duen metal musika egiten dute. Muted taldean anitez garrantzitsuagoak bilakatzen ari diren ñabarduraz eta maileguz jositako musika dago. Orain artekoan, metalak zuen indarrak nagusiena. Gero, metala bezain bote-retsua bihurtu zen melodia atxikitzea kantuari. Metalaren eta melodiaren arteko binomio horrek bere lana egin du, eta melodiaren ildotik tropelean agertu dira ñabardura horiek. Metala eta sekuentzia elektronikoko programatuak. Melodiaz betetako ahotza metalarekin batera. Metala eta pop melodiak, antzinako oihi, rap-ukitu eta garrasien kopurua zeharo gutxitu delarik. Metala eta dantzarako erritmoak nahastuta. Dantza-programazioak eta gitarra zorrotzak, mardulak. Piano soinuek eta biolinek borobildu egiten du Muted taldearen zakartasuna. Muted taldearen ertzak bigunagoak dira, samurragoak, eta horrek dakar Muted entzungarriago bat. Muted publiko handiagoren belarrietara iritsiko da. Muted taldeak, ordea, Muted izaten jarraitzen du.

1.- Muted taldea musika-mugak etengabe zabaltzen ari zinetela zenioten bigarren diskoan, eta hirugarrengoa ari zinetela pentsatzen. Mugak eta limiteak asko zabaldu dituzue "Inox" lanean.

Hirugarren lan honetan, musika-mugak ireki baino aurkitu egin ditugula esango genuke. Ander eta, batez ere, Aitzol abeslaria taldetik irten eta gero, konturatu ginen Muted taldearen musikaren ezaugarrietako bat gabe geratu girela: Aitzolen ahots basatia galdu genuen. Horrek guztiak eraman gaitu kantuak sortzeko garaian beste bide batzuk jorratzera; hots, ahots melodikoei garrantzi handiago ematea. Ahotsen armoniek beste kantu mota bat egitera derri-gortu gaituzte. Ohartu gabe lan egiteko modu berri batekin egin dugu topo, eta geu ere txundituta geratu gara.

2.- Burdinezko edo metalezko kutxa jarri diozue diskoari. Apaingarria edo babesa?

Balio eransgarria da erdi hiltzear dagoen CDarentzat. Esan daiteke CDa ia bildumagile-pieza bat dela, eta metalezko kutxa hori edo pieza hori erosten duenak eraman dezala zerbait harrigarria eta jatorrizkoa. Gure zati bat ere erosten du horrela, geuk egin baitugu, eta horrek artistaren eta entzulearen arteko hurbilpen bat dakar. Ez da apaingarri hutsa: metalezko kutxa horietan gure izerdiak eta ahalegi-nak biltzen dira, zerbait ona eskaini nahia.

3.- Burugabekeriaren munduan bahituta gaude. Zentzurik gabe bizi al gara?

Zentzugabekeriak garamatza horrela bizitzera. Gizartea eta haren buruzagiak maiz kritikatzeko ditugu, baina ez gara ohartzeko haiek gure isla baino ez direla. Gauza guztien aurretik dirua jartzen duen jendeari eman diogu boterea, tele-zaborra guk kontsumitzen dugu eta, azken finean, gu geu izan gaitzeko hori dena aldatzeko gai, baina ez dugu fitxik egiten...

Edu: gitarra

Tito: baxua

Christophe: programazioak

Dani: gitarra

Eneko: ahotsa

Ruben: bateria

Sarean (Oihuka, 2005)

Sena (Baga-Biga, 2007)

nitxi aizpuru [2009ko maiatzaren 8an]

